

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BASTIDAKO UDALA

Dirulaguntzen 2019 plan estrategikoa onestea

Bastidako Udalbatzak, 2019ko apirilaren 17ko ohiko osoko bilkuran, erabaki zuen 2019ko ekitaldirako dirulaguntzen plan estrategikoa, hemen hitzez hitz kopiatu dena, onestea.

BASTIDAKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN 2019KO PLAN ESTRATEGIKOA

Hitzaurrea

Dirulaguntzak sustapen teknika bat dira, interes orokorrekotzat jotzen diren zenbait portaera bultzatzeko edo interes publikoko jardueren kudeaketari begira herri administrazioaren eta partikularren arteko lankidetzaren prozesua bideratzeko. Askotariko dirulaguntzak daude, prozedura konplexuen bidez ematen direnak eta, hortaz, jarraipen eta kontrol eraginkorra izan behar dutenak,

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren ahaleginetako bat da dirulaguntzen gastu publikoaren kudeaketa eraginkortasun eta efizientzia mailak handitzea, eta horretarako gardentasun printzipioan oinarritutako araubidea zehazten du. Xede horri begira, administrazioek jendaurrean ezarri beharko dituzte ematen dituzten dirulaguntzak eta, aldi berean, legeak eremu nazionalako datu basea eratzeko betebeharrak ezartzen du, emandako dirulaguntza guztiei buruzko informazio nabarmena jasoz.

Izan ere, dirulaguntzen gainean informazio zabalagoa izateak merkatuari eragin ahal dizkion distortsio eta oztopoak ezabatzeko bide emango du, eta herri administrazioen jardunak osagarriak eta koherenteak izatea erraztuko du, bikoizketak ekidinez.

Hobekuntzaren harira, legeak ezartzen du dirulaguntzen plan estrategiko bat egin behar dela, helburuak eta lortu nahi dena uztartuko dituena. Plan horrek aurreikusten diren kostuak eta horiek finantzatzeko iturriak ere jaso beharko ditu. Helburua izango da dirulaguntzen bidez bete beharreko behar publikoak erabilgarri dauden baliabideen aurreikuspenei egokitzea, aurretiaz egindako eta urte anitzeko planekin.

Zehazki, Dirulaguntzen Lege Orokorren 8.1 artikulua oinarritzko izaera dauka, eta ezartzen du dirulaguntzak eman nahi dituzten administrazio publikoetako organoek, dirulaguntzak eman aurretik, dirulaguntzen plan estrategikoa onetsi beharko dutela. Plana izango da erabilera publikoko edo gizarte intereseko jardueraren bat edota helburu publiko bat sustatzeko xedea duten politika publikoen plangintza egiteko tresna.

Halaber, Lege horren hamahirugarren xedapen gehigarriak xedatzen duenez, legeko arautan edo arautegietan aurreikusita dauden politika publikoetako buruzko planak eta programak dirulaguntzen plan estrategikoak izango dira. Plan estrategikoaren edukia Dirulaguntzen Lege Orokorren 801. artikuluan jasotakoari egokitu beharko zaio, bai eta Dirulaguntzen Lege Orokorren Arautegia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan jasotakoari ere, eta urtero eguneratu ahal izango da ekitaldi bakoitzeko aurrekontuan ezarritakoaren arabera.

Horregatik, Bastidako Udalak dirulaguntzen plan estrategikoa onartu du. Hona hemen artikulua:

I. Kapituluua. Printzipio Orokorrak

1. artikulua

Udal honek plan estrategiko honetan ezarritakoaren arabera ezarriko ditu dirulaguntzak 2019ko ekitaldian.

2. artikulua

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 2.2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, ez dira plan honen eremuan sartzen Bastidako Udalak beste herri administrazio batzuei administrazioaren jarduera oro har finantzatzeko egiten dizkien diru ekarpenak.

Halaber, ez dira sartzen Bastidako Udalak egiten dizkien diru ekarpenak, ohiko kuota edo aparteko kuota moduan, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian zehaztutako erakundeei, baldin eta udala erakunde horien bazkide bada.

3. artikulua

Plan honetan jasotako dirulaguntzak eman ahal izateko, derrigorrezkoa da urteko udal aurrekontuetan esleipenak egitea, eta oinarri arautzaileak jasotzen dituzten ordenantzak onartzea.

Jardun lerro bakoitzerako ezartzen diren aurrez ikusteko moduko kostuak aldatu ahal izango dira aurrekontua gauzatzeko udal arauan urtero ezartzen den gastuaren aurrekontu lotura mailaren arabera.

4. artikulua

Dirulaguntzak emango dira baldin eta aurrekontu egonkortasunaren helburuak betetzen badira. Hortaz, onartzen diren aurrekontu esleipenak eta horiek ematea arautzen duten oinarriak aipatutako helburuetara moldatu beharko dira unean-unean.

5. artikulua

Dirulaguntzen plan estrategikoa onartzeak ez du esan nahi balizko onuradunek eskubiderik dutenik, eta, plana ez bada bertan jasotako moduan gauzaten, ezingo dute kalte ordainik edo konpentsaziorik eskatu.

6. artikulua

Dirulaguntzen eta herri administrazioen arloko erregulazio juridikoak zenbait jarduketa printzipio orokor ezartzen ditu; horiek guztiak plan estrategikoaren funtsezko elementuak dira eta dirulaguntzen arloko udal kudeaketa gidatu behar dute. Hauek dira:

- Publizitatearen printzipioa: printzipio hau gauzaten da deialdiaren publizitatea bermatzen duen aldez aurreko deialdian eta emandako dirulaguntzen publizitatean; hori ez da oztopo izango dirulaguntzak zuzenean eman daitezen, betiere Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legean, udalaren aurrekontuaren betearazpen oinarrietan, eta gainerako arautegi aplikagarrian ezarritakoarekin bat etorriz.

- Lehia askearen printzipioa: printzipio hori gauzaten da onuradunek bete beharreko baldintzen zehaztapenean, betiere baldintza berdintasunean daudenentzako sarbideragarritasun edo eskuragarritasuna murriztu gabe, funts publikoak banatzean lehia eta berdintasuna bermatuz; hori ez da oztopo izango dirulaguntzak zuzenean eman daitezen, nahiz eta horretarako aldez aurretik beharrezko aurrekontua zainpetu beharko den arautegi aplikagarrian ezarritakoaren arabera.

- Objektibotasunaren printzipioa: irizpide objektiboan arabera ematea eta irizpide horiek alde zuzenetik deialdian finkatuta egotea, onuradun izan daitezkeenek horiek aurretik ezagutzea bermatzearen.

- Baliabide publikoak ematean gardentasunaren eta berdintasunaren eta bereizketarik ezaren printzipioak: printzipio hori gauzatuko da lehiaren, objektibotasunaren eta publizitatearen printzipioak betez; hori, hala ere, ez da oztopo izango dirulaguntzak zuzenean emateko legezko kasuak aplika daitezen. "

- Eraginkortasunaren eta efizientiaren printzipioak: emandako dirulaguntzen jarraipen eta kontrol prozedura bat ezartzean zehaztutako helburuak betetzeko eraginkortasun eta baliabide publikoak esleitzeko efizientzia, betiere dirulaguntzak baloratuz eta proiekturik efikazeenei esleitzuz; dena dela, jasotako dirulaguntzak kuantitatiboki eta kualitatiboki justifikatu beharko dira betiere.

- Aurrekontu egonkortasunari eta gastu aruari egokitzeko printzipioa: dirulaguntzak emateko, aurrekontu egonkortasunaren eta finantzazio iraunkortasunaren printzipioa eta gastu araua bete beharko dira, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak ezarritakoaren arabera.

- Kontrolaren eta analisiaren printzipioa: erakunde eskatzaileen helburuak diruz lagundutako jarduerak burutzeko berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioetara moldatzen diren kontrolatzea eta aztertzea. Eta berariaz, plan estrategikoaren egokitasuna etengabe egiaztatzea, arlo hauetan:

- Planaren justifikazioa gizarte ikuspuntutik;
- Kasu egiten dien herritarren beharrianak;
- Finantza gaitasuna;
- Udalak arlo horretan duen eskumena azaltzea;
- Dirulaguntza lerro hau ez aplikatzearen azterketa.

7. artikulua

Udalbatza izango da dirulaguntzen plan estrategikoa onesteko eta gauzatzeko organo eskuduna.

8. artikulua

Dirulaguntza programak nahikoa eta egokia den aurrekontu zuzkidura izateko baldintzaren pean egongo dira.

Dirulaguntzak eman edo zuzeneko emakidak egin baino lehenago edo aldi berean, gastua onartu beharko da, aurrekontua gauzatzeko Bastidako Udal arauan xedatutakoarekin bat etorritik. Dirulaguntzak eman aurretik, emakida arautzeko arauak edo oinarriak onartu beharko dira, norgehiagoka bidez ematen diren dirulaguntzen kasuan.

II. kapitulua. Planaren edukia

9. artikulua

Plan honen eranskinean ekitaldi honetarako aurrekontuan jasotako dirulaguntzak zehazten dira, gaika antolatuta, eta honako hauek zehaztuta:

- Xedea: diruz lagundutako jarduera zehatza. Besterik zehazten ez bada, norgehiagoka bidezko prozedurak direla uste izango da.

- Lortu nahi dena.
- Emateko modua: emateko aplikatu behar den prozedura bereizten du, horretarako ezarritako printzipio orokorren eta baldintzen arabera.
- Zenbatekoa: dirulaguntza bakoitzerako aurreikusitako esleipena.
- Aurrekontu aplikazioa: dirulaguntza jasotzen duen gastuen aurrekontuko aplikazioa.
- Finantzaketa baliabideak.

10. artikulua

Eranskin hori urtero berrikusiko eta eguneratuko da, udal aurrekontu orokorrean xedatutako kredituen bidez.

III. kapitulua. Dirulaguntzen onuradunak eta arloak

11. artikulua

Batidako Udalak dirulaguntzak emango ditu, deialdi publikoaren edo lerro izendunen bidez, lankidetzaz hitzarmenak sinatuz, pertsonen, elkarten edo erakunde pribatuen alde, onura publiko edo gizarte intereseko jarduerak egitea sustatzeko edo tokiko eskumenari dagozkion xede publikoak lortzea sustatzeko.

Halaber, dirulaguntzak emango zaizkie ekitaldi bakoitzeko udal aurrekontuko izenen zerrendan agertzen diren pertsona, erakunde edo elkarteei, beti udalerrarentzat interes berezia duten jarduerak edo programak egiteko edo sustatzeko badira. Eranskinean zuzenean emateko modalitatean ageri diren dirulaguntzak ez dira ez eskusiboak ez lotesleak.

12. artikulua

Batidako Udalak ekitaldirako ezarriko ditu dirulaguntzak eskumen arlo edo gai hauetan:

- Gizarte ekintza eta sustapena.
- Euskara.
- Kultura.
- Kirolak.
- Ingurumena.
- Beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzea.

Bastidako Udalak plan hori eguneratu ahal izango du arlo berriak barne hartuz, herri eta gizarte interesekoa baldin bada. Era berean, kultura, kirol, hezkuntza, gazteria, aisia eta gizarte zerbitzuetako jarduera programetarako dirulaguntzak ematea arautzen duen udal ordenantzaren ezarritakoa beteko da (ALHAO, 2010eko uztailaren 26a).

IV. kapitulua. Diruz lagundutako programen eraginkortasuna ebaluatzea, emaitzen analisia eta finantza kontrola

13. artikulua

Dirulaguntzaren oinarri arautzaileek eta aplikagarria den gainerako araudiak ezarritakoari jarraituz, dirulaguntzaren onuradunek diruz lagundutako jardueraren memoria, justifikazio kontua eta kasuan kasu eska daitezkeen agiriak aurkezteaz gain, dirulaguntza bakoitzaren eraginkortasuna hobeto analizatzeko, udalaren zerbitzu desberdinetako teknikariek arazoitutako txostena eskatu ahal izango diete honako hauen inguruan: burututako ekintzen kopurua, dirulaguntza jasotzen duten herritarren kopurua eta lortutako helburuen justifikazioa.

14. artikulua

Alderdi hauek hartuko dira kontuan ebaluaziorako:

- Xedea.
- Pertsona edo erakunde onuraduna.
- Diruz lagundutako zenbatekoa.
- Dirulaguntzaren zenbatekoarekin burututako ekintza zehatzak.
- Diruz lagundutako ekintza zenbat herritarri iritsi zaien

- Erakunde emailearen balioespena, emateko garaian erdietsi nahi ziren helburuetara egokitzeari buruz eta haren jatorria den programa mantentzearen edo deuseztatzearen egokitasunari buruz.

V. kapitulua. Planaren kontrola eta ebaluazioa

15. artikulua

Diruz lagundutako programen finantza kontrolaren arduraduna Udal Kontu-hartzailletza da. Berak ondoko hauek aztertuko ditu: diruz lagundutako zenbatekoak benetan ordaindu diren egunak, espedientean aurrez ikusitakoekin alderaturik, ordaintzeko erabili diren bideak eta onuradun bakoitzari dirulaguntza lortzeko eskatutako betebeharren justifikazio egokia.

Kontu-hartzailletzak eskatuko du, dirulaguntzei lotutako administrazio espedienteak abian jartzetik eratorritako egintzak behin betiko izapidetu aurretik, espedienteak kasuan kasuko arloko teknikariek ikus-onetsi ditzatela.

16. artikulua

Udalak deitutako eta emandako dirulaguntzei buruzko informazio guztia legediaren arabera argitara emango da.

I. eranskina

Dirulaguntza jardueraren zerrenda eta banakatzea eskumen arloen arabera

Xedea: Ohiturak, jai herrikoiak eta erromeriak sustatzea.

Lortu nahi dena: Udalerrian etnografia eta kultura izaera duten ohiturak berreskuratzea.

Hartzaileak: Marrate Musika Elkartea.

Emateko modua: Zuzena.

Zenbatekoa: 10.000 euro 2019ko ekitaldirako.

Aurrekontu aplikazioa: 334.481001 partida.

Finantzaketa baliabideak: funts propioak, gastu aurrekontuaren IV. kapitulutik.

Xedea: euskararen erabilera eta hedapena sustatzea udalerrian.

Lortu nahi dena: euskararen normalkuntza eta erabilera sustatzea udalerrian.

Hartzaileak: Bastida ikastolari dirulaguntza.

Emateko modua: zuzena.

Zenbatekoa: 9.000 euro 2019ko ekitaldirako.

Aurrekontu aplikazioa: 320.471000 partida.

Finantzaketa baliabideak: funts propioak, gastu aurrekontuaren IV. kapitulutik.

Xedea: euskararen erabilera eta hedapena sustatzea udalerrian.

Lortu nahi dena: euskararen ikastea eta erabilera sustatzea udalerrian.

Hartzaileak: eragile sozialak.

Emateko modua: lehiaketa.

Zenbatekoa: 8.000 euro 2019ko ekitaldirako.

Aurrekontu aplikazioa: 320.481001 partida.

Finantzaketa baliabideak: funts propioak, gastu aurrekontuaren IV. kapitulutik.

Xedea: euskararen erabilera eta hedapena sustatzea udalerrian.

Lortu nahi dena: euskararen ikastea eta erabilera sustatzea udalerrian.

Hartzaileak: euskara ikasleak.

Emateko modua: lehiaketa.

Zenbatekoa: 3.000 euro 2019ko ekitaldirako.

Aurrekontu aplikazioa: 320.480003 partida.

Finantzaketa baliabideak: funts propioak, gastu aurrekontuaren IV. kapitulutik.

Xedea: sustatzea hizkuntzak jakitea.

Lortu nahi dena: sustatzea hizkuntzak ikastea.

Hartzaileak: hizkuntza ikasleak.

Emateko modua: lehiaketa.

Zenbatekoa: 2.500 euro 2019ko ekitaldirako.

Aurrekontu aplikazioa: 320.480004 partida.

Finantzaketa baliabideak: funts propioak, gastu aurrekontuaren IV. kapitulutik.

Xedea: eskualdeko herri ohitura eta dantzak sustatzea.

Lortu nahi dena: udalerrian etnografia eta kultura izaera duten ohiturak berreskuratzea.

Hartzaileak: Iskorta Dantza Elkartea.

Emateko modua: zuzena.

Zenbatekoa: 3.000 euro 2019ko ekitaldirako.

Aurrekontu aplikazioa: 430.481002 partida.

Finantzaketa baliabideak: funts propioak, gastu aurrekontuaren IV. kapitulutik.

Xedea: Gatzaga Buradongo kontzejuaren intereseko diren gaien kudeaketa.

Lortu nahi dena: Gatzaga Buradongo kontzejuaren intereseko diren gaien kudeaketa, hurbiltasun irizpideetan oinarrituta.

Hartzaileak: Gatzaga Buradongo Kontzejua.

Emateko modua: zuzena.

Zenbatekoa: 70.000 euro 2019ko ekitaldirako.

Aurrekontu aplikazioa: 943.434000 partida.

Finantzaketa baliabideak: funts propioak, gastu aurrekontuaren IV. kapitulutik.

Xedea: udalerrian interes arkitektonikoko ondarea zaintzea eta konpontzea.

Lortu nahi dena: udalerriko interes arkitektonikoko ondarea zaintzea.

Hartzaileak: Bastidako parrokia.

Emateko modua: zuzena.

Zenbatekoa: 6.000 euro 2019ko ekitaldirako.

Aurrekontu aplikazioa: 330.481009 partida.

Finantzaketa baliabideak: funts propioak, gastu aurrekontuaren IV. kapitulutik.

Xedea: adingabekoen prozesu onkologikoen ondorioz, arazo psikikoak eta sozialak pairatzen dituztenei laguntza eskaintzea.

Lortu nahi dena: giza izaerakoak.

Hartzaileak: dirulaguntza Aspanafoha-ri.

Emateko modua: zuzena.

Zenbatekoa: 600 euro 2019ko ekitaldirako.

Aurrekontu aplikazioa: 330.481003 partida.

Finantzaketa baliabideak: funts propioak, gastu aurrekontuaren IV. kapitulutik.

Xedea: herritarrak sentsibilizatzea.

Lortu nahi dena: herritarrak sentsibilizatzea herrien artean dauden alde itzelen arrazoi eta ondorioen gainean eta jakinaraztea mundu ordena zuzen eta solidario bat ezartzeko elkarlanean jarduteko beharra dagoela.

Hartzaileak: Euskal Fondoa.

Emateko modua: zuzena.

Zenbatekoa: 600 euro 2019ko ekitaldirako.

Aurrekontu aplikazioa: 231.481003 partida.

Finantzaketa baliabideak: funts propioak, gastu aurrekontuaren IV. kapitulutik.

Xedea: erakundeen arteko lankidetzaren sustatzea.

Lortu nahi dena: Estatuan toki administrazioek interes berdintsuak izan ditzatela lortzea.

Hartzaileak: FMPE.

Emateko modua: zuzena.

Zenbatekoa: 1.610 euro 2019ko ekitaldirako.

Aurrekontu aplikazioa: 920.4090000 partida.

Finantzaketa baliabideak: funts propioak, gastu aurrekontuaren IV. kapitulutik.

Xedea: erakundeen arteko lankidetzaren sustatzea.

Lortu nahi dena: Autonomia erkidegoan toki administrazioek interes berdintsuak izan ditzatela lortzea.

Hartzaileak: EUDEL.

Emateko modua: zuzena.

Zenbatekoa: 3.500 euro 2019ko ekitaldirako.

Aurrekontu aplikazioa: 920.4190000 partida.

Finantzaketa baliabideak: funts propioak, gastu aurrekontuaren IV. kapitulutik.

Xedea: Kultura, kirol, hezkuntza, gazteria, aisia eta gizarte jarduerak sustatzea.

Lortu nahi dena: Kultura, kirol, hezkuntza, gazteria, aisia eta gizarte jarduerak sustatzea.

Hartzaileak: udalerrirako intereseko elkarteak.

Emateko modua: lehiaketa.

Zenbatekoa: 5.000 euro 2019ko ekitaldirako.

Aurrekontu aplikazioa: 330.481001 partida.

Finantzaketa baliabideak: funts propioak, gastu aurrekontuaren IV. kapitulutik.

Bastida, 2019ko apirilaren 25a

Alkatea

LAURA PEREZ BORINAGA